



PRENTSA-OHARRA



Rosario Toledo *Cuarteta* lanaren irudi bat

Rosario Toledok *Cuarteta* izeneko flamenko ikuskizuna estreinatuko du Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaon

- Zentroak eszenAZ, Arte Bizien Denboraldiari amaiera emango diio hurrengo ekainaren 6an, osteguna, atzerantz dantzatzen, kantatzen eta barre egiten duen dantza saio batekin
- Rosario Toledok Inma "La Carbonera" eta Eva Ruiz "La Lebri" ditu agertokian, flamenkoaren tradizioko bi kantari

CUARTETA Rosario Toledo

Noiz: ekainak 6, osteguna
Dónde: Azkuna Zentroko Auditorioa
Ordua: 19:00

Bilbo, 2024ko maiatzaren 31ean.- Azkuna Zentroa - Alhondiga Bilbao, Bilboko Udaleko Gizarte eta Kultura Garaikidearen Zentroak ESZENaz, Zuzeneko Arteen Denboraldia 2023-2024 Cuarteta izeneko ikuskizun batekin itxiko du. Rosario Toledoren lanak "inauterietako laukote" baten entsegua egiten du, dantzaren eta cantearen bidez. Cádizko inauteri-talde jator horretan, kideak inoiz ez dira lau izaten, hiru edo bost baizik.



Rolak alderantzikatzean, Rosario Toledok, Inma “La Carbonera”k eta Eva “La Leбри”k atzerantz dantzatzen, atzerantz kantatzen eta atzerantz barre egiten dute. Eta hori guztia egiten dute, obarioak masailetan, birikak sudurrean, burua ipurdian eta bizkarra kopetan dituztela. Errepertorio tradizionala dute, iraulia, alderantzikatua, aldatua, nahastua, kontrakoa, antagonista.

"Flamenkoa atzerantz dantzatzeak zer dakarren ikertzean, konturatzen gara zenbateraino dagoen berez flamenkoa alderantzikaturik. Inauterietako umorea, beraz, ezarritako egitura kolokan jartzea da guretzat, alderantzikatzeko lekua eta denbora, non dena sartzan den aurretik zein atzetik", azaldu du artistak.

Rosario Toledok Inma “La Carbonera” eta Eva Ruiz “La Leбри” ditu agertokian. Flamenkoaren tradizioko bi emakume kantari dira, eta jakin-minaz eta prestasunaz laguntzen dute, haiek dakitena proiektu honen zerbitzura jartzen. Bertan, Cádizko inauterietako umorea ikertu dute, alde femeninotik, Idoia Zabaletaren eta Pedro G. Romeroren laguntzarekin.

eszenAZ denboraldiaren amaiera

Azkuna Zentroa - Alhondiga Bilbaoren eszenAz denboraldia hainbat espaziotan egiten da, hala nola Auditorioan edo Kubo Baltzan. Hogei proposamen inguruk osatzen dute, horietako zazpi estreinaldiak, antzerki, dantza, musika eta performance garaikidearen lengoia eta forma berrietara hurbiltzea proposatzen dutenak.

Gainera, estreinaldi horietako batzuk Zentroarekin batera ekoizitakoak dira, hala nola *Inactuales*, Oscar Gómez Mata - L 'Alakranen azken lana, *Halley Led Silhouette* ekoizpen berria edo Pablo Viar antzerkigilearen *Confines*, zeinaren sormen prozesua Azkuna Zentroan garatu den.

Hilero izan da arte eszenikoekin hitzordua Azkuna Zentroan: kontzertuak, dantza, antzerkia, *performancea* eta edukiera hainbat kasutan bete duten haur eta familientzako proposamenak.

Belaunaldien arteko esperientzia artistiko inklusiboak izan dira, zuzeneko musikatik, txotxongiloen mugimendutik, antzerkitik eta baita zinema mututik ere, zuzeneko arteen bidez haurren sentsibiltatea eta jakin-mina pizten saiatzen direnak.

Eskolako jendearentzako jardueretan ere sarrerak sarritan agortu dira. EszenAZen parte gisa, denboraldian zehar aktoreak, koreografoak edo musikariak publiko horrekin elkartzea proposatzen da, zuzeneko arteen gaien, formatuen edo diziplinen inguruan partekatzeko.



Rosario Toledo

Espainiar Dantzan lizentziaduna, Sevillako Goi Mailako Dantza Kontserbatorioan. Rosario Toledok (Cadiz, 1977) bere ibilbide profesionalari ekin zion Charo Cruz maisuaren eskutik, eta Manuela Carrasco eta Antonio El Piparen konpainiako kide izan zen.

Sevillako tablaio ezagunetan egin zuen lan, ikuskizunetan gonbidatutako artista gisa, Javier Latorre, Javier Barón, Antonio Canales, Israel Galván, Joaquín Grilo, Miguel Poveda, Arcángel, Dorantes, José Antonio Rodríguez eta antzeko artistekin batera. Mario Mayarekin bakarlari gisa lan egin zuen De Cádiz a Cuba, la mar de Flamenco ikuskizunean.

Maisu handi horiekin izandako harremanari esker, dantza flamenkoaren oso ikuspegi pertsonala landu du. Dantza sakona, kontzeptuala eta ideiez hornitua, baina, aldi berean, oinak lurrean izanda, naturari atxikirik eta kalera irtenik. Testuinguru horretan, cadiztarrak proiektuak garatu ditu bere konpainiarekin, sekulako arrakasta lortu du kritikaren eta publikoaren aldetik eta ezinbesteko dantzari bihurtu da egungo flamenkoan.

Informazio gehiago, irudiak edo elkarrizketak

Maidier Olano
prentsa@azkunazentroa.eus
Tels. +34 648 773 373